

2023/12/13an EGINDAKO EZOHIKO  
OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día  
13/12/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

**EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2023ko abenduaren 13an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da ezohiko osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 13 de diciembre de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

## **1.- ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA.**

Eskoriatzan etxez etxeke zerbitzua prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeke espediente onartu zuen Udalbatzarrak 2023ko urriaren 10ean egindako bilkuran. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 307.301,16 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 12.292,05 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 2 urtetik gorakoa izan.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten berenak:

- GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L

Aurkeztutako eskaintza bakarraren balorazioaren emaitza honako hau izan da:

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>GEHIENEZ</b>	<b>LORTUTAKOAK</b>
LAN PROGRAMA	30	29
ENPRESAREN ANTOLAKETA	7	6
ESKAITZA EKONOMIKOA	50	50
HIZKUNTZA ARLOKO NEURRIAK	3	0
KONTZILIAZIO ARLOKO NEURRIAK	5	4
ENPLEGUAREN EGONKORTASUNA	5	5
GUZTIRA	100	<b>94</b>

Kontratazio mahaiak 2023ko azaroaren 9an egindako proposamena eta Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak emandako diktamena ikusi dira.

GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu eta 15.365,06 euroko behin betiko bermea jarri du. Horiek horrela, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ESKORIATZAN EMATEKO kontratua GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitzea ondoren esango diren prezioetan. Kontratua baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen, kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen eta ondorengo erabakian adierazitako baldintzaren menpe egongo da.

Lanegunetako orduaren prezioa: 29,00 € (BEZa gabe), 30,16 € (BEZa barne).

Jaiegunetako orduaren prezioa: 33,66 € (BEZa gabe), 35,00 € (BEZa barne).

**Bigarrena.-** GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak gaur egun zerbitzua ematen ari diren langileak subrogatu behar dituzenez, eta, horregatik, baldintza-agirietan ezarritako hizkuntza-baldintzak bete ezin duenez, kontratazioa arautzen duten baldintza teknikoaren agirian jasotako aurreikuspenaren babesean, eta Euskara zerbitzuak egindako proposamenaren arabera, esleipena honako baldintza hauen menpe gelditzen da:

1. Kontratua esleitzeko, GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak hizkuntza-normalizazioko plan bat aurkeztu beharko du, 3 hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Plan horren helburua izango da subrogatutako langileak

2023/12/13  
Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria

pixkanaka gaitzea kontratazio hau arautzen duten baldintza agirietan finkatutako hizkuntza baldintzetan zerbitzua emateko.

2. Plana aurkeztu aurretik, GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak zerbitzuaren arduradun tekniko eta politikoeekin adostu beharko du planaren edukia, eta arduradun politikoei euskara arloko udal teknikarien aholkularitzara jaso ahal izango dute.

3. Aurkeztutako planak Udalaren Osoko Bilkuraren onespena izan beharko du, kontratazio-organoa den aldetik.

**Hirugarrena.-** Ondorengo gastuak baimentzea eta konprometitzea:

319.593,20 euro 2024ko ekitaldiko 0300.227.231.10.19.2024 aurrekontu partidaren kargura.

319.593,20 euro 2025eko ekitaldiko 0300.227.231.10.19.2025 aurrekontu partidaren kargura.

**Laugarrena.-** Kontratu hau egikaritzen parte hartuko duten langileei "Etxez etxeko laguntza Eskoriatzan emateko lan hitzarmena, langileen ordezkariak eta GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak sinatuta 2023ko irailaren 29an" aplikatuko zaie.

**Bosgarrena.-** GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresari jakinaraztea, jakinarazpen hau jasotzen duenetik hamabost egun baliouduneko epea igarota, bost eguneko epea izango duela administrazio agirian kontratua sinatzeko.

**Seigarrena.-** Kontratu honen esleipena eta formalizazioa argitaratzea kontratatzailearen profilean.

## **2.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:05ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 10 de octubre de 2023, adoptó el acuerdo de aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación y con valor estimado igual o superior al umbral europeo, de prestación del servicio de AYUDA A DOMICILIO en Eskoriatza, por importe de 307.301,16 euros al año, a los que se deberá repercutir 12.292,05 euros, correspondientes al IVA y una duración de 1 año, que podrá ser prorrogado por otro año más sin que la duración total del mismo pueda exceder de 2 años.

Dentro del plazo establecido al efecto, presentaron oferta las siguientes empresas:

- GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L

El resultado de la valoración de la única oferta presentada ha sido el siguiente:

<b>CRITERIOS</b>	<b>MAXIMO</b>	<b>OBTENIDOS</b>
PROGRAMA DE TRABAJO	30	29
ORGANIZACION EMPRESARIAL	7	6
OFERTA ECONOMICA	50	50
MEDIAS EN MATERIA LINGÜISTICA	3	0
MEDIDAS EN MATERIA DE CONCILIACION	5	4
ESTABILIDAD EMPLEO	5	5
<b>TOTAL</b>	<b>100</b>	<b>94</b>

Vista la propuesta de la Mesa de Contratación de fecha 9 de noviembre de 2023 ; así como el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes.

Visto que la empresa GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L ha procedido a la entrega de la documentación a la que fue requerida y al depósito de una fianza definitiva por importe de 15.365,06 euros, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes ACUERDA:

**Primero:** Adjudicar a GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. el contrato de PRESTACION DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA por los precios que a continuación se indicarán y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista y con sujeción también a la condición señalada en el acuerdo siguiente.

- Hora laborable/precio: 29,00 €(sin IVA), 30,16 €(IVA incluido)
- Hora festiva/precio: 33,66 €(IVA excluido), 35,00 €(IVA incluido)

**Segundo:** Resultando que la empresa GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. , está obligada a subrogar al personal que viene prestando el servicio hasta la fecha y por ello no puede cumplir los requisitos lingüísticos establecidos en los pliegos, al amparo de la previsión contenida en el pliego de prescripciones técnicas que rige la contratación, y de acuerdo con la propuesta elevada desde el servicio de Euskera, someter la adjudicación a las siguientes condiciones:

**2023/12/13**  
**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria

1. La adjudicación queda condicionada a la presentación por parte de GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L., en el plazo de 3 meses a contar desde el siguiente al de la notificación de este acuerdo, de un plan de normalización lingüística que tenga por objeto la progresiva capacitación del personal subrogado para la prestación del servicio en las condiciones lingüísticas fijadas en los pliegos que rigen la presente contratación.
2. Antes de la presentación del plan, GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. deberá de consensuar el contenido del mismo con los responsables técnicos y políticos del servicio, pudiendo éstos últimos recurrir al asesoramiento de los técnicos municipales del área de euskera.
3. En su calidad de órgano de contratación, el plan presentado deberá contar con la aprobación del Pleno de la Corporación.

**Tercero:** Autorizar y comprometer los siguientes gastos:

- 319.593,20 euros con cargo a la partida presupuestaria 0300.227.231.10.19.2024 del ejercicio 2024.
- 319.593,20 euros con cargo a la partida presupuestaria 0300.227.231.10.19.2025 del ejercicio 2025.

**Cuarto:** A las personas trabajadoras que participen en la ejecución de este contrato se les aplicará el “Convenio Colectivo de Ayuda a Domicilio para el municipio de Eskoriatza firmado por los representantes de los trabajadores y la empresa GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. el 29 de septiembre de 2023.”

**Quinto:** Notificar a GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. que, tras transcurrir el plazo de quince días hábiles desde la recepción de la presente notificación de adjudicación, dispondrá de cinco días para proceder a la suscripción del contrato en el documento administrativo.

**Sexto:** Publicar la adjudicación y formalización de la presente contratación en el Perfil del Contratante.

## **2.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:05 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

2023/12/13  
Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria